

IKASTETXEETAN BERDINEN  
ARTEKO TRATU TXARRAK  
GERTATZEN DIRENEAN  
**JARDUTEKO GIDA**



# IKASTETXEETAN BERDINEN ARTEKO TRATU TXARRAK GERTATZEN DIRENEAN JARDUTEKO GIDA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA  
IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**Ikastetxeetan** berdinaren arteko tratu txarrak gertatzen direnean jarduteko gida / [egilea, Hezkuntza Ikuskaritza]. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2007

p. ; cm.

Port. y texto contrapuesto en castellano: Guía de actuación en los centros educativos ante el maltrato entre iguales

ISBN 978-84-457-2577-1

1. Acoso moral en la escuela. 2. Violencia en la escuela. I. Euskadi. Inspección Educativa. II. Título (castellano).

364.271-057.87

37.06

Argitaraldia: 1.a 2007ko maiatzean

Ale-kopurua: 4.000 ale

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritza

Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Hezkuntza Ikuskaritza

Azalaren diseinua: Mass-Color®

Diseinu grafikoa eta muntaia: Miren Unzurrunzaga Schmitz

Inprimaketa: Artes Gráficas ELKAR S.Coop.

ISBN: 978-84-457-2577-1

Lege-gordailua: BI-1775-07

Sarrera	7
<b>1. zatia</b>	
Berdinen arteko tratu txarren definizioa eta ezaugarriak	11
<b>2. zatia</b>	
Jarduera-protokoloa	13
<b>3. zatia</b>	
Tratu txarren tratamendurako prebentzio-neurriak	23
<b>ERANSKINAK</b>	
<b>I. eranskina</b>	
Datu-bilketa errazteko dokumentuak	29
<b>II. eranskina</b>	
Hezkuntza Ikuskaritzarako txostena	32
<b>III. eranskina</b>	
Jarduera Plana betetzeko orientazio-eredua	36
<b>IV. eranskina</b>	
Berritzeguneetako Aniztasun eta Bizikidetzako aholkularitzen zerrenda	42
<b>V. eranskina</b>	
Erreferentzia bibliografikoak	43

## Arrazoen azalpena

EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak *Ikastetxeetan berdinen arteko tratu txarrak gertatzen direnean jarduteko gida* prestatu zuen 2004-05 ikasturtean eta ikastetxe guztiei banatu zitzairen. Bi ikasturte igaro dira eta ikastetxeek berek nahiz Hezkuntza Administrazioako eta beste Erakunde batzuetako zerbitzuek egindako iradokizun eta ekarpenak kontuan hartuta, komenigarritzat jo da Gida horretan zenbait hobekuntza sartzea, berdinen arteko tratu txarrak izaten direnean erantzun egokiagoa emateko.

Azpimarratzekoa da, hala ere, eguneratutako Gida honetan jasotakoa eskolako bizikidetzak hobetzeko helburuarekin ikastetxeetan sustatu behar den jardueraren multzoaren zati bat baino ez dela. Hain zuzen ere, bizikidetzaren arazoak ekar ditzaketen hainbat gatazka sortzen dira ikastetxeetan. Horregatik, ikastetxeetako prebentzio-eredu orokorrak dira halako egoerak modu positiboan berbidertzeko eta eskolan bizikidetzak egokia bermatzeko modurik onena.

Hala ere, zenbaitetan gertakari larriak sortzen dira eta horietarako protokoloak ezarri behar dira arazoa ahalik eta era lasterrenean, eraginkorrean eta ikasleentzat seguruenean konpontzeko. Nolanahi ere, kontuan izan behar da arazo mota bakoitzak (heldua / heldua, heldua / ikaslea, ikaslea / ikaslea, bakana edo errepikatzen dena...) ezaugarri bereziak dituela eta, ondorioz, modu jakin batean tratatu behar izaten direla.

Gida honetan indarkeria mota bati heltzen zaio batez ere: *berdinen arteko tratu txarrak ikastetxeetan*. Fenomeno horrek ondorio larriak izan ditzake erasotako ikasleengan epe labur, ertain eta luzera, euren izaera prestatzeko prozesuan daudelako, ahulagoak direlako eta egoera gainditzeko zailtasun handiagoak dituztelako. Horren ondorioz, arrisku handiagoa dago gertaera horrek helduaroan modu negatiboan eragiteko. Gainera, ikastetxeetan gertatzen diren kasu gehienak Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan gertatzen diren arren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasleei eragiten dieten gertaerak ere izaten dira eta litekeena da horietan ere Gida honen edukia erabili behar izatea.

## Gidaren ezaugarriak

Honako hauek dira Gidaren oinarrizko ezaugarriak:

### • Izaera orientatzailea

Dokumentu honen helburua da *ikastetxeetan berdinen artean izaten diren tratu txarren* kasu posibleak tratatzeko orientazioa ematea. Ildo horretan, ikastetxe bakoitzak egin eta sakondu ditzaketen oinarrizko jardueren proposamena da Gida hau, eta Gidan jasotako Jarduera Protokoloan xedatutakoa bakarrik da derrigorrezkoa.

## • Urgentziazko esku-hartzeak

Halako egoeretan biktimaren babesa eta pertsonen eskubideak bermatzeko hartu behar diren neurriak ere jasotzen dira Gidan. Baita halako kasuak hautemateko, urgentziaz esku hartzeko eta beste erakunde batzuetara jotzeko ikastetxeetan burutu beharreko jarduerak ere.

## • Prebentzioaren garrantzia

Gidaren hirugarren zatian, prebentzio-lana sustatzeko informazioa jasotzen da eta Hezkuntza Sailak horri buruz egindako Programa eta materialak aipatzen dira. Honako hauek dira Programa eta material horien helburu nagusiak: hezkuntza-komunitatea sentsibilizatzea, parte-hartzea sustatzea, ikasleena bereziki, tutoreen lana bideratzea eta ikasleak taldean eta banaka tratatzea.

## • Esku-hartze koordinatua

*Berdinen arteko tratu txarretan* eta, oro har, bizikidetzako arazo guztietan, beharrezkoa da Hezkuntzako profesional guztiek modu koordinatuan esku hartzen dutela bermatzea, bai ikastetxean bertan (zuzendaritza-taldea, tutorea, orientatzailea, aholkularia, irakasleak, bizikidetzabaztordea...) eta bai ikastetxeak familiekin eta kanpoko zerbitzuekin dituen harremanetan (Berritzegunea, Hezkuntza Ikuskaritza, Osasun Zerbitzuak, Udal Zerbitzuak...).

Oso garrantzitsua da, halaber, hezkuntza-komunitateko edozein kidek tratu txarren bat antzematen badu, berehala Ikastetxeko Zuzendaritzari jakinaraztea.

## • Konfidentzialtasunaren premia

Azpimarratzekoa da hezkuntza-jarduera osoan konfidentzialtasun-printzipioa errespetatzeko premia eta, batez ere, kasu hauetan.

## • Gida hedatzea

Zuzendaritza-taldeak Gidaren edukia ahalik eta gehien hedatzea komeni da Hezkuntza Komunitateko kide guztien artean, Ikastetxeko Aginte Organoen (Klaustroaren, OOG edo Ordezkaritza Organo Gorenaren, Eskola Kontseiluarena, etab.) bitartez..

## Gidaren zatiak

Gida honek hiru zati ditu:

1. Berdinen arteko tratu txarren definizioa (eskola-jazarpena edo bullying-a).
2. Berdinen arteko tratu txarren kasuetarako Jarduera Protokoloa.
3. Prebentzio-neurriak.

Gida osatzeko zenbait eranskin ere gehitu dira, txostenean jasotzen diren neurriak praktikan jartzeko laguntzeko.

Hori guztia dela medio, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Ikastetxeetan berdinen arteko tratu txarrak gertatzen direnean jarduteko gidaren bertsio berri hau eskaintzen die ikastetxeei. Gida hau Hezkuntza Ikuskaritzak egin du, ikastetxeen, laguntza-zerbitzuen eta beste erakunde batzuen laguntzaz, problematika konplexu honi heltzean irakasle- eta zuzendaritza-taldeentzat lagungarri izango delakoan, eta aldi berean, errespetuan eta tolerantzian oinarritutako bizikidetza lortzen lagunduko duelakoan. Gida hau eskura daiteke baita ere Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko web orri honetan: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>

## **JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS**

Vitoria-Gasteiz, 2007ko maiatzaren 15a.  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua





## BERDINEN ARTEKO TRATU TXARREN DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK

Ikastetxeetan berehala antzeman eta tratatu behar dira *berdinen arteko tratu txarrak*; izan ere, zenbat eta lehenago antzeman, orduan eta aukera gehiago daude arazoa konpontzeko.

Horretarako, argi **definitu** behar dira *ikastetxeetako berdinen arteko tratu txarrak* eta bestelako egoera disruptibo jakinetatik bereizi behar dira. Azken horiei ere modu eraginkorrean erantzun behar zaien arren, beste ikuspegi batetik aurre egin behar izaten zaie askotan. Ondorengo lerroetan daude jasota tratu txarren definizioa eta ezaugarriak, gaian aditu direnek behar bezala egiaztatut ostean. Oinarrizko erreferente teorikoak dira zenbait jokabide indarkeriazko edo desegoki *ikastetxeetako berdinen arteko tratu txarrak* diren edo ez zehazteko.

### Definizioa

“Ikasle batek *erasoak pairatzen dituela edo biktima bihurtzen dela* esan ahal izateko, etengabe eta aldi batean jasan behar ditu *beste ikasle batek edo batzuek* egindako ekintza negatiboak” (Olweus, 1998).

### Berdinen arteko tratu txarren ezaugarriak

Berdinen arteko tratu txarrek honako ezaugarri hauek dituzte:

- **Botere-desoreka:** botere fisiko, psikologiko eta sozial desberdinaren ondorioz, indarren desoreka sortzen da pertsonen arteko harremanetan.
- **Nahita egitea/errepikatzea:** nahita egitea behin eta berriz errepikatzen den erasoaren bidez adierazten da eta, jokabide horrek, beste eraso batzuen jomuga izateko beldurra sortzen dio biktimari.
- **Defentsa-gabezia/Pertsonalizazioa:** ikasle bakar bat izaten da normalean tratu txarren biktima eta horrela babesik gabeko egoeran jartzen da. Modu horretan, biktimak ez du aurkitzen bere burua babesteko adina baliabide, eta isolamendua nahiz estigmatizazioa pairatzeaz gain, autoestimua eta bere izen ona ere galtzen ditu

### Berdinen arteko tratu txarren motak

Berdinen arteko tratu txarrak hainbat motatakoak izan daitezke:

- **Gizarte-bazterketa eta marjinazioa**
  - Norbait baztertzea. (Pasiboa)
  - Parte hartzen ez uztea. (Aktiboa)

- **Hitzezko eraso**
  - Norbait iraintzea. (Zuzena)
  - Ikasleaz gaizki hitz egitea. (Zeharkakoa)
  - Ezizenak jartzea. (Mistoa)
- **Zeharkako eraso fisikoa**
  - Norbaiti gauzak ezkutatzea.
  - Gauzak apurtzea.
  - Gauzak lapurtzea.
- **Eraso fisiko zuzena**
  - Norbait jotzea.
- **Larderia/ xantaia / mehatxua**
  - Beldurra sartzeko norbait mehatxatzea.
  - Gauzak egitera derrigortzea.
  - Armen bidez mehatxatzea.
- **Sexu-jazarpena edo -abusua**
  - Sexu-jazarpena egitea.
  - Sexu-abusua egitea.

Erabilitako bitartekoaren arabera, ikastetxeetako berdinen arteko tratu txarrak hitzezkoak, idatzizkoak, keinu bidezkoak edo ziber-bullying-a (mugikorra, internet...) izan daitezke.

Biktimaren ezaugarrien arabera ere tratu txarrak hainbat motatakoak izan daitezke: arrazista, homofobikoa, sexista, urritasuna duten ikasleei egindakoa, etab.

**Oharra:** Ikastetxeetako berdinen arteko tratu txarrak deskribatzeko Gida honetan erabilitako terminologiaren helburua erraz ulertzea eta hezkuntza arloan erabilia izatea da. Litekeena da adierazpen horiek bat etortzea legeriak zenbait hutsegite edo deliturentzat darabiltzan izendapenekin, baina horrek ez du esan nahi garrantzi penala dutenik.

### **Berdinen arteko tratu txarren ondorioak**

- **Biktimarentzat:** eskola-porrota, trauma psikologikoa, arrisku fisikoa, gogobetetasun eza edo gustura ez egotea, barne-herstura, zorigaitza, nortasun-arazoak eta garapen orekaturako arriskua.
- **Erasotzailearentzat:** delituzko jokabide bihur daitekeenaren lehen urratsa izan daiteke, bote-rea erasoan oinarritzen dela interpreta dezake eta helduarora iristen denean ere joera bera izan. Indarkeriazko egintza gainbaloratzeraz ere irits daiteke, gizartean onartzen eta saritzen den jokabidea dela pentsatuz.
- **Lekuko diren ikaskideentzat:** jokabide horrek bidegabekeriaren aurrean jarrera pasiboa eta eroso izatera eramán ditzake eta, ondorioz, pertsonaren balioari buruzko interpretazio okerra egin dezakete.

## JARDUERA PROTOKOLOA

Ikastetxe bateko ikasleen artean tratatu txarrak izaten badira, ikastetxe horretako irakasleek nola jokatu behar duten jakitea da Jarduera Protokoloaren helburua. Izan ere, ezinbestekoa da berehala eta zalantzarik gabe erantzutea, bai inplikaturik dauden ikasleei (biktimei, erasotzaileei eta lekukoei) eta bai haien familiei.

Estandarizaturiko protokoloa betetzeak esku-hartzea sistematizatzen laguntzen du. Horretarako, ordea, kontuan hartu behar diren faseak eta alderdiak zehaztu behar dira, arazoa identifikatu eta ebatzi ahal izateko prozedura sistematikoa behar den egoeretan jardunbideak edo orientazioak eman behar dira eta, gainera, asmo onez izan arren desegokiak izan daitezkeen jarduera jakin batzuk aurrez ekidin behar dira.

Jarduera Protokoloa funtsezkoa da ikastetxeetan izaten diren tratatu txarrak tratatzeko. Hala ere, zilegi da ikastetxe bakoitzak bere testuinguruaren edo kasu bakoitzaren ezaugarrien arabera protokolo hori egokitzea eta zabaltzea.

### 1. Informazio-bilketa

#### 1.1. Ikastetxearen eta erasotako ikaslearen identifikazio-datuak

Ikastetxea: ..... Herria: .....

##### Ustezko biktima:

Izen-deituren inizialak: .....

Eskolatze Liburuaren zk.: .....

Adina: .....

Maila/Taldea: .....

##### Ustezko erasotzaileak: (adierazi pertsona bakoitzaren datuak)

Izen-deituren inizialak: .....

Eskolatze Liburuaren zk.: .....

Adina: .....

Maila/Taldea: .....

Esku-hartzea eskatutako data: .....

1.2. Eskaera jaso duen pertsona: .....

1.3. Esku-hartzeko eskaeraren jatorria

Jatorria:

<input type="checkbox"/>	Ikaslea	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	Familia	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	Tutorea	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	Beste irakasle batzuk	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	Orientatzailea/Aholkularia	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	BerritzeguneA	<input type="checkbox"/>
	Hezkuntza Ikuskaritza <sup>1</sup>	
	Beste batzuk .....	

Adingabeak inplikatura dauden gertaera guztietan ahalik eta zuhurren jokatu behar dela kontuan hartuta, izapideak egitean konfidentzialtasuna bermatu behar da

1.4. Salatutako tratu txarren mota eta larritasunari buruzko hasierako datu-bilketa

	ez	bai	puntuala	errepikatua
1. Gizarte-bazterketa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	- Aktiboa: parte hartzen ez uztea. - Ez-egiteagatiko bazterketa: bestea kontuan ez hartzea.			
2. Hitzeko eraso	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	- Irainak, ezizenak jartzea, biktimaz gaizki hitz egitea,...			
3. Zeharkako eraso fisikoa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	- Gauzak ezkutatzea, apurtzea, lapurtzea,...			
4. Eraso fisiko zuzena	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	- Jotzea			
5. Larderia/xantaia/mehatxua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	- Beldurra sartzeko mehatxuak egitea - Xantaia (zerbait egitera behartzeko mehatxu egitea, ez erasotzearen truke dirua eskatzea). - Armekin mehatxatzea			
6. Sexu-jazarpena edo -abusua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

<sup>1</sup> Hezkuntza Ikuskaritzak eskatzen badu esku-hartzea, gertaeren berri zein egoeratan eta noren bidez jakin den jakinaraziko da.

### 1.5. Tratu txarrak izaten diren lekuak

Erasoko lekuen kokapena:

- Gelan
- Patioan
- Korridoreetan
- Komunetan
- Jangelan
- Gimnasioan/Aldageletan
- Autobusean
- Ikastetxeko sarrera-irteeretan
- Beste batzuk (adierazi non eta nola):  
.....

Gertaerak ikastetxearen instalazioetatik kanpo izaten badira ere, horren berri jakitean, guraso-  
ei edo legezko tutoreei jakinarazi behar zaie, zuzendaritza-taldeak edo irakasleek eskura  
dituzten babes-neurri egokiak ezarri behar dituzte eta, egokitzat jotzen bada, dagokien era-  
kunderi jakinaraziko zaie.

### 1.6. Gertaeren berri izatea

Zaintzaz arduratzen diren edo gertaeren tokian zeuden pertsona heldu arduradunek honako ger-  
taera hauen berri izan dute:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

## **2. Kasuaren hasierako azterketa eta urgentziako esku-hartzeak**

- 2.1. Zuzendaritza-taldea aholkulari eta/edo orientatzailearekin bilduko da behar den esku-hartzea aztertzeko eta baloratzeko eta,** dagokion aktaren bitartez, idatziz adierazita utziko da zer pertsona bertaratu diren, zer gertaera jorratu diren eta zer erabaki hartu diren. Aldi berean, informazioaren konfidentziasuna bermatuko da.
- 2.2.** Beharrezkotzat jotzen bada, **urgentziako behin-behineko neurriak** hartuko dira erasoak izan den pertsona babesteko nahiz erasoak saihesteko:

### **Erasotako ikaslearen segurtasuna berehala bermatuko duten neurriak**

- Ikasle erasotzaileen eta erasotako ikaslearen zaintza espezifikoa.
- Familiei laguntza eskatu euren seme-alabak zaintzeko eta kontrolatzeko.
- Bana-banako tutoretza inplikaturik dauden pertsonekin.
- Ikastetxeko heldu bat aukeratu biktimak behar duenean berarengana jo dezan.
- Aurrez eraturako ikaskide-taldeak antolatu biktimari lagun egiteko, batik bat arrisku handieneko uneetan (sarrerak, irteerak, korridoreak...).
- Irakasleen ordutegiak berrantolatu premia duten ikasleek arreta berezia izan dezaten.
- Beharrezkotzat jotzen bada, taldez aldatu aldi baterako edo behin betiko.
- Biktimari bere burua babesteko orientabideak eman.
- Pertsonal berezia gehitu.
- Behar izanez gero, etxeko laguntza eskatu.
- Beste batzuk.

### **Ikasle erasotzaileei zuzendutako neurri zuzentzaileak**

- Tutoreak edo ikasketaburuak kargu-hartze pribatua egin.
- Ikastetxean debekatuta dauden jokabideak argi eta garbi adierazi, baimendutakoaren mugak azalduz eta arazoaren larritasuna adieraziz.
- Familiei laguntza eskatu euren seme-alabak zaintzeko eta kontrolatzeko.
- Beharrezkotzat jotzen bada, erasotzailea edo erasotzaileak aldi baterako taldez aldatzea eska daiteke.
- Diziplinazko espedientea ireki.
- Beste batzuk.

## **3. Familiei lehen aldiz jakinaraztea**

Familiek aintzat hartzen dituztela eta babestuta daudela sentitu behar dute. Kaltetutako familia guztiak kontuan hartu behar dira eta euren laguntza eskatu behar da egoerari soluziorik onena bilatzeko. Saihestu egin behar dira egoera behar bezala kudeatzea galarazten duten jarduerak.

Tutoreak edo izendatutako pertsonak honako hauek egingo ditu zuzendaritza-taldeari jakinarazi ondoren:

- **Biktimari eta bere familiari** banakako elkarrizketa egiteko hitzordua eman, honako hauek egiteko:
  - Ikaslearen gurasoek edo legezko ordezkariak gertaeren berri ez dutenean gertatutakoaz informatzeko.
  - Arazoa zenbaterainokoa den jakiteko. Gurasoek edo legezko ordezkariak arazoa ezagutzen duten zehaztu eta, horrela bada, orain arte zer neurri hartu dituzten jakin.
  - Hartu diren edo hartuko diren urgentziazko neurrien berri eman, haien iritzia eta haien egin ditzaketen ekarpenak jasoz.
  - Delituzko egintzen aztarnak daudenean, ikasle erasotzaileak salatu ditzaketela jakinarazi.
- **Erasotzaileari, bere familiari** eta gainerako inplikatuak banakako elkarrizketa egiteko hitzordua eman, honako hauek egiteko:
  - Salatutako egintzak ezagutzera eman eta haiei buruzko informazioa bildu.
  - Gurasoek edo legezko ordezkariak arazoa ezagutzen duten zehaztu eta, horrela bada, orain arte zer neurri hartu dituzten jakin.
  - Hartu diren edo hartuko diren urgentziazko neurrien berri eman, haien iritzia eta haien egin ditzaketen ekarpenak jasoz. Betiere arazoa ebazteko asmoz egin beharko dute eta ez euren babespeko adingabeari babes faltsua emateko asmoz.
  - Ikastetxearen eskumenekoak diren eta garatu behar diren jardueren berri eman. Egintzak delitu izan daitezkeela nabarmen ikusten denean, erasotako pertsonaren familiak edo bere legezko arduradunek burutu ditzaketen ekintzen berri eman.

## **4. Informazioa osatu, egiaztatu eta aztertu**

### **4.1. Informazioa osatu galdekizunen, elkarrizketen eta beste prozedura batzuen bitartez**

Zuzendariak edo kasuaren jarraipena egiteko arduradun izendatutakoek, ondoren aipatzen diren iturrietatik jasoko dute informazioa eta lortutako datuak idatziko dituzte. Informazio-bilketa hori zuhurtasunez egingo da eta, ikasleen kasuan, euren adinagatik, heldutasunagatik edo aldarre-egoeragatik beraientzat kaltegarriak izan litezkeen edo kasua ebaztea zaildu dezaketen bilketa-metodoak saihestuko dira.

1. Erasotako ikaslea
2. Ikasle erasotzailea/k
3. Familia edo legezko ordezkariak (erasotzailearenak eta erasotakoarenak)
4. Gelako tutorea eta irakasleak
5. Inplikaturik egon daitezkeen erasotako pertsonaren edo erasotzailearen lagunak
6. Beste batzuk: (beharrezkotzat jotzen bada bakarrik)
  - 6.1. Ikastetxearekin lotura duten pertsonak (jangelako zaintzaileak, autobuseko laguntzaileak, eskolaz kanpoko ekintzetako monitoreak, AZP...)
  - 6.2. Beste erakunde batzuen mendeko pertsonak (astialdiko hezitzaileak, Gizarte Ongizatea, Osakidetza...)

## 4.2. Informazioa gurutzatu

Informazio-iturrien arteko elkarguneak, kointzidentziak, bateratzeak eta dibergentziak bilatzea da. Lortutako datuetan oinarrituta, berdinen arteko tratu txarren aztarnarik badagoen jakiten ahalegin-duko da ikastetxea. Baita zer motatakoak diren eta zenbaterainoko larriak diren jakiten ere.

Horretarako, dokumentu honetako lehen zatian ikusi ditugun tratu txarren definizio, ezaugarri eta motara jo daiteke, eta baita, galdeketa egin zaien pertsonen emandako informazioetik abiatuz, I. eranskinean datozen laburpen-taulak erabili ere.

## 5. Hezkuntza-xedeetarako, berdinen arteko tratu txarren kasua den edo ez erabakitzea

---

Lortutako datuak ikusi ondoren, ikastetxeak erabakiko du detektatu den egoera berdinen arteko tratu txarren kasua den edo ez, Gidaren lehen zatian aurkeztutako definizioaren arabera.

## 6. Hezkuntza Ikuskaritzari jakinaraztea

---

Kasu bat, hezkuntza-xedeetarako, berdinen arteko tratu txartzat jotzen denean, salatutako gertaerak eta hartutako neurriak Hezkuntza Ikuskaritzari jakinaraziko zaizkio txosten idatzi baten bidez.

Era berean, poliziaren edo epailearen aurrean salaketa jartzen bada edo Arartekoari kexa aurkezten bazaio, idatzizko txostena Hezkuntza Ikuskaritzara bidaliko da.

*Txostenaren eredia ere ematen da (ikus II. eranskina).*

Kasua aztertu ondoren, berdinen arteko tratu txarrik ez dagoela erabakitzen bada ere, Hezkuntza Ikuskaritza jakinaren gainean jartzea komeni da, gertaerei ematen zaien kalifikazioa eta hartzen diren neurriak adieraziz.

## 7. Jarduera Plana

---

Ikastetxeak Jarduera Plana prestatuko du eta, beharrezkotzat jotzen badu, Berritzegunearen eta Hezkuntza Ikuskaritzaren aholkua eskatuko du. Planak ikastetxean, inplikaturako geletan eta gatazka duten ikasleengan aplikatu beharreko neurriak definitu behar ditu, eta baita ere biktimaren, erasotzaileen eta ikasle "lekukoen" bana-banako tratamendua bermatu behar du.

**Planak idatziz jaso behar ditu ikastetxean aplikatu beharreko neurriak.**

Jarduera Plana bat etorriko da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saitetik bultzatzen ari den Ikastetxeko Bizikidetzarako Plan Orokorrarekin eta honako hauek dira plana egiteko proposatzen diren orientabide batzuk:

- a) Komeni da **lan-talde bat prestatzea eta/edo ikastetxeko irakasle bat izendatzea** koordinazio-lanak egiteko, informazioa zentralizatzeko, familiekin egin beharreko bilerak planifikatu, prestatu eta haien deialdiak egiteko, kasuaren jarraipena egiteko eta burutzen diren jarduerak ebaluatzeko.



## b) Ustezko biktimarekin egin beharreko jarduerak

- Biktimari laguntza, babesa eta segurtasuna ematea bere konfiantzazko pertsona heldu arduradun baten bitartez.
- Indarkeriazko egoeraren testuinguruko azterketa.
- Kontuan izan behar da zer fasetan dagoen egoera:
  - Lehenengo faseetan badago (irainak, adar-jotzeak, xehetasun aipagarri batengatik ikas-kide bat iraintzea...): Berehalako lana egin behar da biktimarekin, hasierako oreka berreskura dezan, bere burua erruduntzat jo ez dezan, estresa murriztu dezan, gauzak orokortu ez ditzan eta autoestimua negatiborik sor ez dezan.
  - Fase aurreratuagoetan badago (erasoaren erruduna bera dela pentsa dezake biktimak edo jarrera-aldaketak izan ditzake): Kasu horretan biktima erasotzaileengandik urruntze-ko eta bere inguruan afektuzko babes-sarea eratzeke aukera aztertu behar da. Hala ere, kontuan izan behar da biktimaren eta erasotzaileen edo lekukoen artean tarte fisikoa ezartzea eragiten duten babes-neurriak izugarri balioztatu behar direla eta ez dela sortu behar bazterketa-sentsaziorik, izan ere, horrela, pertsona erasotzailearen garaipena dela emango luke eta are gehiago irainduko litzateke biktima, haren autoestimua kaltetuz.
- Autoestimua hobetzen ahalegindu.
- Gizarte-trebetasunak landu: norbere burua babesteko jokabideak eta jokabide asertiboak; talde-laneko trebetasunak eta erasotzaile izan gabe biktima izateari uzteko trebetasunak garatzea eta "role playing" deiturikoak (benetako egoeren itxurak egitea) lantzea.
- Beharrezkotzat jotzen bada, kanpoko zerbitzuetara jotzea (gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak edo biak). Kasu horretan gurasoei edo legezko arduradunei hartutako neurriaren berri eman behar zaie (hobe izango da neurri hori haiekin adostuta hartzea).

## c) Ustezko ikasle erasotzaileekin egin beharreko jarduerak

- Pertsona erasotzaileei mezu garbia transmititzea edozein erasoren aurrean tolerantziarik ez dela izango adieraziz.
- Bana-banako elkarrizketak antolatu:
  - Arazoaren larritasunaz kontzientziatzeko.
  - Indarkeriazko jokabideak identifikatzeko.
  - Bere jarreraren kausari buruzko azterketa egiteko.
  - Eragindako kaltearen hausnarketa eta aitortpena egiteko.
  - Enpatia eta arrazoibide morala lantzeko.
- Gizarte-trebetasunetan trebatzeko programak.
- Norbere oldarkortasuna kontrolatzeko programak.
- Neurri hezitzaile, zuzentzaile eta/edo zehapenezkoen aplikazioa:
  - Zehapenek helburu hezitzailea izan behar dute, gertaeren inguruko hausnarketa egitera eta haien gaineko kontzientzia hartzera, jarrera aldatzera eta egindako kaltea konpon-tzera zuzendutakoa. Baina ekintza negatibo edo antisozialak zigortu gabe ez direla gera-tuko ere adierazi behar da.

- Adibide batzuk: gertaerei, euren ondorioei eta kalteak konpentsatzeko moduari buruzko hausnarketaren idatzizko lanak, komunitatearen zerbitzura egindako lanak, jarduera osagarrietan edo eskolaz kanpokoetan aldi baterako edo behin betiko parte hartzeko eskubidea bertan behera uztea, eskolaz kanpoko orduetan lan espezifikoa egitea, etab.
- Eragindako kalteen konponketa edo konpentsazioa sustatzea (barkamena eskatzea, diruzko kalte-ordaina, beste batzuk)
- Diziplinazko espedientea irekitzea.
- Beste batzuk.

#### **d) Lekukoekin edo, behar izanez gero, gelako taldearekin egin beharreko jarduerak**

- Tutoretza-plana: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak prestatu eta sustatzen dituen programak eta materialak modu koordinatuan martxan jartzea.
- Berdinen arteko bizikidetzan indarkeriazko jokabideak esplizituki gaitzetsi eta salatzeko aukera ematen duten ekintzak burutzea:
  - Salatu behar diren jokabideak argi eta garbi definitzea.
  - Lekukoek egoera horietan duten egitekoa argi eta garbi definitzea. Injustizia salatzeko jokabide solidarioaren eta salatari izatearen arteko aldea aztertzea.
  - Jokabide horiek gaitzesteko jarrerak sustatzea, azterketa- eta eztabaida-saioen bitartez eta erantzun alternatiboen bilaketaren bitartez.
  - Lagun-taldeek ematen duten segurtasun faltsuari buruz eta bandek duten erakargarritasunari buruz eztabaidatzea.
- Ikasleak isolamenduaren eta biktimizazioaren aurkako esparru babesle, prebentziozko eta zuzentzailea sortzen inplikatzeko.
  - Berdinen arteko laguntza-estrategiak garatzea.
  - Ikasle guztiak taldean integratzea eta lankidetzaren bitartez gizarteratzearen aldeko trebetasunak garatzea.
- Ikasleei irakastea, bai laguntza eskatzen, bai besteek beraiek salataritzat joko dituzten edo beraiek biktima bihurtuko dituzten beldurra gainditzeko.
- Konfidentzialtasuna bermatuz larderia-egoerak salatzeko ikastetxean dauden aukera eta baliabideen berri ematea (telefono adiskidea, iradokizunen postontzia, gatazkak ebazteko batzordea...).

#### **e) Familiekin egin beharreko jarduerak**

- Familiekin harreman arina, atsegina eta jarraitua izan behar da, familiekin euren ikuspuntuak adierazi ahal izateko espazioak eta aukerak eskainiz.
- Bileren egutegia adostu.
- Ikastetxea ematen ari den urratsen berri eman. (Zuhurtzia edo diskrezioaren garrantzia azpimarratuz).
- Laguntza eskatu eta elkarrekiko konpromisoak hartu.
- Biktimen eta erasotzaileen familiei euren seme-alabekin jokatzeko orientabideak eman.

#### f) Irakasle-taldearekin egin beharreko jarduerak

- Jarduera-irizpideak adostu eta bateratu.
- Tutorearen lana babestu eta erraztu.
- Erasotako pertsonari berehala laguntza eskaini eta babesa bermatu.
- Diziplina-sistema positiboa erabili, adostutako eta argi eta garbi definitutako arauak dituen.
- Edozein jazarpen-jokabide edo errespetu faltaren aurrean ahalik eta lasterren esku hartu.
- Ikasleek tutoreari edo Eskola Komunitateko beste kide batzuei informazioa helarazteko bideak erraztu: postontziak jarri, laguntzako helbideei buruzko informazioa eman, etab.
- Gatazka jakin batzuen kudeaketan ikasleen inplikazioa sustatu (ikasle laguntzaile edo bitartekarietzako programak antolatu).
- Galdetegien bitartez fenomenoaren izaera eta tamaina ebaluatu eta, kasu bakoitzaren arabera, esku hartzeko estrategia zehatzak diseinatu.

Praktikan jarri behar diren jarduerak planifikatzeko eta erregistratzeko orientazio-dokumentua (III eranskina) eta Berritzeguneetako Aniztasun eta Bizikidetzako Aholkularitzen zerrenda (IV. eranskina) ere ematen dira gida honetan.

## **8. Jarduera Planean proposatutako neurriak inplikaturik dauden familiei jakinaraztea**

---


Inplikaturik dauden ikasleen familiak jakinaren gainean jarri behar dira ikasleekin hartutako banan-banako neurriei buruz eta baita talderako/taldeetarako, mailarako/mailetarako edo ikastetxerako proposatutako antolamendu- eta prebentzio-izaerako neurriei buruz ere.

## **9. Hartutako neurrien jarraipena eta ebaluazioa**

---

Ikastetxeko zuzendaritza arduratuko da, bai Jarduera Planean aurreikusitako neurriak betearazteaz, bai ikastetxearen erreferentzia-ikuskatzailea neurri horien betetze-mailari buruz eta inplikaturik dauden ikasleen egoera sozial eta hezkuntzakoari buruz informatzeaz. Horretarako, eta beharrezko diskrezioa edo zuhurtzia gordez betiere, ikastetxean egongo da Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura III eranskina (edo ikastetxeak hartutako horren baliokidea) behar bezala beteta eta eguneratuta.

# JARDUERA PROTOKOLOAREN FASEAK



## **ESKOLA EREMUAN BERTINEN ARTEKO TRATU TXARREI AURRE EGITEKO PREBENTZIO NEURRIAK**

Hezkuntza-komunitate batean bizikidetzako programak edo planak garatzea da ikasleen arteko tratu txarrak prebenitzeko neurri nagusietako bat. Egiaztatuta dago ikastetxeetan edozein indarkeria mota prebenitzeko modurik onena hezkuntza-komunitateko harremanak honako alderdi hauetan oinarritzea dela: pertsona guztien eskubide eta betebeharretan, duintasunaren errespetuan, gizareratzearen aldeko jokabideak sustatzen dituzten irizpide hezitzaile eta integratzaileetan eta gatazkei aurre egiteko elkarrizketa erabiltzean. Alderdi horiek guztiek osatzen dute bizikidetzako programa eta plan horien guztien ardatza.

Horretarako, indarkeriaren kultura gainditzeko prozesua jarri behar da abian ikastetxeetan. Horrela ikastetxeek, ikasleak sozializatzear gain, ikusaraziko diote hezkuntza-komunitateari elkarrizketa, errespetua, erantzukizuna eta komunikazioa direla bizikidetzaren oinarria.

Prebentziozko neurrien artean bi motatakoak daude: batetik, izaera orokorrekoak, batik bat ikastetxeko bizikidetzaren orokorrean hobetzera zuzendutakoak, eta bestetik, bertinen arteko tratu txarrekin eta jazarpenarekin lotura handiagoa dutenak, eskolako talde, ikasgela edo norbanakoei aplikatzen zaizkienak, hezkuntza-komunitate osoari ere eragin diezaioketen arren.

### **1. Hezkuntza Komunitate osoa sentsibilizatzen eta inplikatzeko laguntzen duten antolamendu-neurriak**

---

Familiaren eta ikastetxearen arteko lankidetzaren da eskolako heziketa eta bizikidetzaren hobetzeko gako-faktoreetako bat. Irakasle guztien inplikazioa eta ikasleen partaidetza ere faktore garrantzirik dira, batik bat bizikidetzako arauak prestatu, aplikatu eta berrikusteko prozesuetan; izan ere, horrela, ikastetxean hartzen diren neurrien erantzule sentitzen dira ikasleak. Honako hauek dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bultzatutako neurrietako batzuk, hezkuntza-komunitate osoa sentsibilizatzen eta inplikatzeko lagundu dezaketenak:

- Ikastetxean Bizikidetzaren Behatokia sortzen lagundu, Hezkuntza Komunitate osoaren partaidetzarekin eta ordezkartzarekin.
- Urteko Bizikidetzaren Plana prestatu eta Ikastetxearen Urteko Planean eta Urteko Memorian txertatu. Honako atal hauek izan ditzake planak:
  - Justifikazioa.
